



**AGINDUA, 2022KO XXXXXAREN XX(E)KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE
ETA LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
PERTSONA DESGAITUEN ENPLEGAGARRITASUNAREKIN LOTUTAKO
PROGRAMA ETA ZERBITZUAK ETA ENPLEGU-ZENTRO BEREZIEN EUSKAL
ERREGISTROA ARAUTUKO DITUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO
PROZEDURA HASTEN DUENA.**

Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginak ezartzen du desgaitasuna duten pertsonen lanerako eskubidea dutela, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak oinarrituz baldintzetan.

Araudi horrekin bat, enplegu-politikaren xedea izango da desgaitasuna duten pertsonen jarduera-, enplegu- eta laneratze-tasak handitzea, bai eta haien enpleguaren kalitatea hobetzea eta lan-baldintza duinagoak izan ditzaten lortzea ere, haien diskriminazioaren aurka eginez modu aktiboan. Horretarako, administrazio publiko eskudunek haien enplegu-aukerak eta lanbidean gora egiteko aukerak sustatuko dituzte lan-merkatuan, eta orobat sustatuko dute beharrezko laguntzak izan ditzaten enplegua bilatzeko, lortzeko eta mantentzeko, eta utzitako enplegura itzultzeko.

Halaber, ezartzen du desgaitasuna duten pertsonen beren lanerako eskubidea erabil dezaketela enplegu-mota hauen bidez:

- a) Enplegu arrunta, enpresetan eta administrazio publikoetan, barnean hartuta enplegu lagunduko zerbitzuak.
- b) Enplegu babestua, enplegu-zentro berezietan nahiz lan-enklabeetan.
- c) Enplegu autonomia.

Aipatutako testu bateginak berariaz jasotzen du desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko beharra, haien laneratzea errazteko laguntzak ezarriz: besteak beste, kontratatze, lanpostu-egokitzeak egiteko eta lantokietan haien irisgarritasuna, mugikortasuna, komunikazioa edo ulermena eragozten duten oztopoak kentzeko dirulaguntzak.

Enplegu babestuari dagokionez, aipatutako araudiaren 43. artikuluan enplegu-zentro bereziak arautzen dira, eta artikulua horretan zehazten denez, enplegu-zentro bereziak dira helburu dutenak ondasunak edo zerbitzuak ekoiztea, merkatuko eragiketetan erregularitasunez parte hartuz, eta aldi berean xede dutenak enplegu ordaindua ziurtatzea desgaitasuna duten pertsonen eta pertsona horien ahalik eta kopururik handiena laneratzea enplegu-erregimen arruntean. Halaber, artikulua horren arabera, enplegu-zentro bereziek, laguntzako unitateen bitartez, desgaitasunen bat duten langileen egokitze pertsonala eta soziala lortzeko behar dituzten doikuntza-zerbitzuak eskaini behar dituzte.

Donostia kalea 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ



Araudi horrek enplegu-zentro bereziak sortzeko eta abian jartzeko zein desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuak sortzea sustatzeko agindua ezartzen die administrazio publikoei.

Desgaitasuna duten pertsonen laneratzeko aukera bermatzea xede duten xedapen horiekin bat, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegu Legearen testu bateginean jasotzen denez, Enplegua Aktibatzeako Espainiako Estrategia –enplegua aktibatzeako politiken helburuak eta enplegu-zerbitzu publikoek garatzen dituzten zerbitzuak eta programak biltzen ditu– artikulatzen duten ardatzetako bat 3. ardatza da: Enplegu-aukerak. Horrek barnean hartzen ditu kontratazioa, enplegu-sorkuntza eta lanpostuen mantentzea sustatzeko helburua duten jarduketak, batez ere enplegua lortzeko eta mantentzeko zailtasun handienak dituzten taldeentzat, eta arreta berezia jartzen da, besteak beste, desgaitasuna duten pertsonen egoeran.

Autonomia-erkidegoek, ardatz horiei estaldura emateko, enplegu-politika aktiboen zerbitzuak eta programak diseinatu eta garatu behar dituzte. Horretarako, Enplegu Legearen 38. artikuluan ezartzen denez, kontuan hartu behar dituzte estatuko lurralde osoan aplikatzekoak diren eduki komunak; horiek erregelamendu bidez arautuko direla aurreikusi da. Orobat dio ezen, erregelamendu bidezko garapen horretan, desgaitasuna duten pertsonen laneratzeko laguntzeko enplegu-politika aktiboen lege-esparrua arautuko da Estatuko neurriei dagokienez; lege-esparru horretan, Estatuan aplikatu beharreko gutxieneko edukiak zehaztuko dira.

Aipatu programetarako erregelamendu-garapenik ezean, Euskal Autonomia Erkidegoan, 168/2019 Dekretua onartu zen, urriaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen (2019ko azaroaren 28ko EHAA, 227. zk.). Dekretu horretan, lehen aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoan kudeatu beharreko askotariko programak, desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko helburua dutenak, bildu dira, tresna arauemaile bakar batean, hain zuzen.

Ondoren, 818/2021 Errege Dekretua onartu zen, irailaren 28koa, Enplegu Sistema Nazionalaren enplegua aktibatzeako programa erkideak arautzen dituen (2021eko irailaren 29ko BOE, 233. zk.); dekretu horrek, hain zuzen, lehen aipatutako Enpleguari buruzko Legearen 38. artikulua aipatzen duen erregelamendu-garapena egiten du. Enplegurako aktibatzeako politiken programa komunetarako eduki edo baldintza komunak ezartzen dituen oinarritzko araudia da. Aipatu errege-dekretuaren azken xedapenetako bederatzigarrenak xedatutakoari jarraikiz, administrazio publikoek araudia indarrean jartzen denetik urtebeteko epea izango dute bertan aurreikusitako enplegurako aktibatzeako programa komun bakoitzerako beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko. Epealdia, beraz, 2022ko urriaren 1ean amaituko da.

Programa komunen oinarritzko alderdiak (gutxieneko helburua eta edukiak, azken hartzaileak, finantzaketa eta berariazko baldintzak eta lehentasunak) xedatzen dituen aipatu errege-dekretuaren xedea kontuan hartuz gero, eta desgaitasuna duten

pertsonen enplegarritasunarekin zerikusia duten programa eta zerbitzuei (programa eta zerbitzu horiek urriaren 29ko 168/2019 Dekretuak araututakoei) nola eragiten dien ikusita, Dekretu honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko araudia egokitu behar da.

Aldaketa nagusia programa desberdinetarako dirulaguntzen zenbatekoetan nabarituko da. Era berean, azpimarratu behar da dirulaguntzen kostu sinplifikatuak Enplegu Lagunduaren jarduerari aplikatzea, bai unitate kudeatzaileei, bai dirulaguntzen onuradunei izapideak errazteko.

Aurrekoa gorabehera, badaude orain dela gutxi onartu diren beste araudi batzuk, zeintzuek, era berean, desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko programei buruzko araudi arauemailea egokitzeko beharra sortzen baitute. Alde batetik, maiatzaren 25eko 368/2021 Errege Dekretua dago, adimen-gaitasun mugatua duten pertsonen enplegua lortzea sustatzeko ekintza positiboko neurriei buruzkoa; horren arabera, aipatu kolektiboa desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntan sartzea sustatzeko programetan sartu behar da. Bestaldetik, abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua dago, lan-erreformarako, enplegu-egonkortasunaren bermerako eta lan-merkatuaren eraldaketarako presako neurriena; dekretuak lan-kontratuei buruzko aipamenak eta haien iraupena berrikustea eskatzen du. Azkenik, ekainaren 29ko 156/2021 Dekretuak, zeinaren bidez aldatzen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuak onartzen dituen Dekretua (2021eko uztailaren 6ko EHAA, 132. zk.) erakundearen egitura berria jasotzen du, besteak beste, erakundean bertan izandako aldaketen ondoriozkoa, baita bere gain hartutako eginkizun berriak ere. Araudi horrek, laguntzak kudeatu, ebatzi, baliabideak bideratu eta publikotasuna bermatzeko eskumena duten organoei dagokienez, aldaketa egokiak egitera behartzen du.

Aipatutako aldaketa guztien ondorioz, eta segurtasun juridikoa bermatzeko, egokiagotzat jotzen da dekretu berri bat sortzea, indarrean dagoen 168/2019 Dekretua, urriaren 29koa, indargabetuko duena.

Ekimena Eusko Jaurlaritzak 2022. urterako aurreikusi duen Urteko Araugintza Planean dago; aipatu plana Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 15eko bilkuran hartu zuen erabakiaren bidez onartu zen, *Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen dekretua aldatzeko dekretu gisa.*

Araudi berria egiteko, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutakoa bete behar du izapideak; lege horren 12.1 artikulua ezartzen duenez, prozedura gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da. Halaber, lege horren 13.1 artikulua hasiera-agindu horren eskakizunak eta gutxieneko edukiak ezartzen ditu.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortzen, ezabatzen eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun arloak finkatzen dituenak) 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lan eta Enplegu Sailari dagozkio lan arloko eskumenak.

Urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuak (Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) xedatzen du Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzari dagokiola araudi-proposamenak lantzea enplegu- eta prestakuntza-arloan eta diru-sarreraren bermeko eta gizarteratzeko arloan, betiere Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren bidez.

Bestaldetik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak onartzen dituen maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren 7. artikuluko p) apartatuan xedatutakoaren arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eginkizunak eraginpean hartzen dituzten gaietan arau-proposamenak egitea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluari dagokio. Agindu hori betez, Lanbideren Administrazio Kontseiluak, 2022ko ekainaren 21ean egindako bilkuran hartutako Erabakiaren bidez, hizpide dugun arau-proposamena onartu eta Lan eta Enplegu Sailera bidali zuen, dagokion xedapen orokorra egiteko prozedurari hasiera emateko.

Azaldutako aurrekari guztiak oinarri hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Hasiera ematea “*Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona desgaituen enplegua sustatzeko programak eta enplegu zentro berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen Dekretu Proiektua*” egiteko prozedurari, ondoko apartatuetan xedatutakoaren arabera:

a) Dekretu-proiektuaren helburua eta xedea.

Proiektatutako xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona desgaituen enplegarritasunarekin zerikusia duten programak eta zerbitzuak, baita enplegu-zentro berezien Euskal Erregistroa ere, arautzea izango du helburu, eta indargabetuko du indarrean dagoen 168/2019 Dekretua, urriaren 29koa, eduki berberak arautzen dituen (2019ko azaroaren 28ko EHAA, 227. zk.) (aurrerantzean, 168/2019 Dekretua).

Dekretu berriaren helburu nagusia aipatu programen gaur egungo araudia 168/2019 Dekretua onetsi ondoren onartu diren eta bere edukiari eragiten dioten hainbat arauditan xedatutakoaren arabera egokitzea da, hain zuzen, honako hauetan:

- 818/2021 Errege Dekretua, irailaren 28koa, Enplegu Sistema Nazionalaren enplegua aktibatzeke programa erkideak arautzen dituen (2021eko irailaren 29ko BOE). Errege Dekretu horrek modu orohartzailean eta sistematizatuan arautzen ditu enplegurako aktibatzeke programa komunak; izan ere, programa horiek osatu behar duten funtsezko edukiak ezartzen ditu, besteak beste, 168/2019 Dekretuan araututakoak.

- 156/2021 Dekretua, ekainaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuak onartzen dituen Dekretua (2021eko uztailaren 6ko EHAA, 132. zk.); 156/2021 Dekretuak, erakundearen antolaketa-egituran egindako aldaketen artean, besteak beste, zuzendaritza-organoen eginkizunak aldatu zituen eta eginkizun horiek 168/2019 Dekretuan esleitutako zereginei eragiten diete.

- 32/2021 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, lan-erreformarako, enplegu-egonkortasunaren bermerako eta lan-merkatuaren eraldaketarako presako neurriena (2021eko abenduaren 30eko BOE); aipatu dekretuak Langileen Estatutuari buruzko Legearen testuategina aldatu zuen eta, hori dela eta, 168/2019 Dekretuan lan-kontratuei buruz egiten diren aipamenak eta haien iraupena berrikustea eskatzen du.

b) Bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Erabilitako eskumenaren lege-esparruari dagokionez, Espainiako Konstituzioaren 40. eta 41. artikuluetan xedatutakoari lotuta dago; izan ere, artikuluko horiek botere publikoei eskatzen diete enplegurako politika bat egin dezatela eta, langabeziarik egonez gero, ezar dezatela laguntza eta prestazio nahikoa. Agindu horri erantzunez, 148.1.13. artikulua ezartzen du autonomia-erkidegoek bere gain har ditzaketela sustapen ekonomikoko eskumenak, politika ekonomiko nazionalak finkatutako helburuen barruan; halaber, 149.1.13 artikulua bidez, Estatuak eskumen eksklusiboa gordeko du jardura ekonomikoaren plangintza orokorreko oinarrien gainean eta koordinazioaren gainean. Artikulu beraren 7. atalean, bestalde, estatuari esleitzen zaio lan arloko legegintzako eskumen eksklusiboa, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek hura exekutatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, hizpide dugun lege-ekimena Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak (aurrerantzean, EHAE), abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutakoak, 9.2 artikulua b) eta c) apartatuetan eman zituen eskumenen esparruan kokatzen da; hain zuzen, artikuluko horrek xedatzen duenez, euskal herri-aginteei, beren eskumenen esparruan, bizi- eta lan-baldintzen hobekuntzaren aldeko politika bultzatuko dute eta enplegua gehitzea eta ekonomiaren oreka sustatzeko neurri lagungarriak hartuko dituzte.

Era berean, Autonomia Estatutuaren 10.25 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du Euskadiko jarduera ekonomikoa sustatu, garatu eta planifikatzeko ekonomiaren antolaketa orokorrarekin bat.

Aurrekoaz gain, 10.2 artikulua adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela bere autogobernu-erakundearen antolaketa arloan, araubide arloan eta funtzionamenduarenean, estatutu honen arauen barruan.

Lan arloko legeriari dagokionez, lan-legeria betearaztea Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiola ezartzen du 12.2 artikulua. Ildo horretan, Transferentzien Batzorde Mistoak 2010eko urriaren 28an hartu zuen Erabakiaren bidez, azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuak eta azaroaren 9ko 289/2010 Dekretuak onartuta, Euskal Autonomia Erkidegoari lan arloko legeria betearazteko eginkizun eta zerbitzuak transferitu zitzaizkion, lan, enplegu eta lanbide-heziketarako prestakuntza arloan, ordura arte Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak gauzatzen zituenak.

Aipatu Erabakiak B apartatuan jasotzen ditu Estatuko Administrazioari dagozkion eginkizun eta zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartu dituenak; horien artean, enplegua sustatzeari eta babesteari lotutako gaiak daude.

Transferitutako eginkizun eta zerbitzuak kudeatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua sortu zen; bere eginkizunak, EAEko eskumen-eremuan, urriaren 13ko 3/2011 Legean arautu dira eta 82/2012 Dekretuak onartu dituen Estatutuetan garatu dira. Izan ere, besteak beste, lan-munduan eta gizartean sartzeko zailtasun bereziak dituzten gizataldeentzako enplegu-programa bereziak egiteko eginkizuna esleitu zaio Lanbideri (3. artikulua).

c) Zer ondorio izango dituen ordenamendu juridikoan.

Araudi honek tresna arauemaile bakar batean arautuko du EAEn kudeatu behar diren programa anitz, desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko; bide batez, indargabetuko du indarrean dagoen 168/2019 Dekretua, urriaren 29koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta enplegu-zentro berezien Euskal Erregistroa.

Hori guztia, garapen ekonomikoaren eta lan arloko legeria betetzearen arloko eskumenaren esparruan, non sartuta baitago enplegu-politikaren arloko eskumena.

d) EAEren eta, bereziki, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrekontuan izan dezakeen eraginari buruzko aurreikuspena. Irabaziak, administrazio-kargak eta enpresa txiki eta ertainen gaineko inpaktua.

Dekretu-proiektuak indarrean dagoen 168/2019 Dekretuaren edukia desgaitasuna duten pertsonak enplegurako aktibatze programa komunetako baldintzen arabera (bereziki, baldintza ekonomikoen arabera) egokitzea ekarriko du ondorioz; programa horiek 818/2021 Errege Dekretuan araututa egoteak, lehenago esan bezala, finantzatzerantz bideratzen diren dirulaguntzen zenbatekoak igotzea ekarriko du.

Hortik ondoriozta daiteke, dirudienez, aurrekontuen arloko eragina; beharrezkotzat jotzen da hori aztertzea eta dagokion memoria ekonomikoa egitea, 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan xedatutakoa betez.

Proposamenari lotutako irabazi eta administrazio-kargei dagokienez, dekretu-proiektuak ez du aldatuko enplegu-zentro bereziak kalifikatzeko eta erregistroan inskribatzeko izapidea, indarrean dagoen 168/2019 Dekretuaren IV. kapituluaren araututakoa. Proiektua egiteko orduan, dagoeneko saiatu zen prozedura sinplifikatzen, izapidetze elektronikoen bidez.

Bestaldetik, arauketa berriaren helburuetako bat hau da: dirulaguntzen programetako bat (Enplegu Lagundua) kostu sinplifikatuen sistema batera egokitzea; horrek erraztuko du kudeaketa eta, beharbada, murriztuko du erakunde onuradunek aurkeztu beharreko dokumentazioa, 16/2012 Legeak, ekainaren 28koak, Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzekoak, III. kapituluaren sustatzen duen administrazio-kargak murriztearen ildoa.

e) Zer izapide eta txosten jotzen diren bidezkotzat.

6/2022 Legearen 13.1 artikuluen e) apartatua xedatutakoari jarraikiz, prozedura hasteko Aginduak proposatu den arauketaren gaia eta edukia direla eta bidezko iritzitako izapide eta txostenak aipatuko ditu. Adierazitakoa kontuan harturik, jarraian, aurreikusitako dekretu-proiektua idazteko eta onartzeko hasiera batean eskatzen diren izapideak eta txostenak aipatuko dira:

1.- Prozedura hasteko Agindua egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Legesarean argitaratzea.

6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, eta, argitaratzearekin batera, era automatikoan jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren bidezkotasunari eta egokitasunari buruzko oharra egin ditzaten.

Era berean, prozedura hasteko agindu hau ezagutza partekatuko "Legesarea" lankidetzaren espazioan argitaratuko da, xedapen orokorrak egiteko prozedura

izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehenengo apartatuaren 1. puntuan xedatutakoarekin bat etorriz.

2.- Proiektua idaztea.

Dekretu-proiektuaren testua Agindu honen edukia aintzat hartuta idatziko da, eta lortu nahi diren helburuei ondoen egokitzen zaizkien aukerak hartuko dira kontuan, beharraren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak betez eta lege-aurreproiektuaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko egiten diren kontsulten emaitza aintzat hartuta, 6/2022 Legearen 14.1 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, APEL) 129. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Testuan behar bezala azaldu beharko dira Dekretu-proiektua egiteko erabakia justifikatzen duten arrazoiak eta oinarri juridikoak, 6/2022 Legearen 14.2 artikulua eta Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartu zuen Erabakiaren lehenengoa apartatuko 1. puntuak ezartzen duten moduan; erabaki horren bidez onartu dira arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak (2017ko abenduaren 15eko EHAA, 238. zk.).

Idatzitako testuak elebiduna izan beharko du aldez aurreko onarpena jaso eta izapidetu aurretik, araudia idazteko prozesu osoan hizkuntza-bertsioak landu bitartean hizkuntza bien arteko berdintasuna bermatzeko, 6/2022 Legearen 14.5 artikulua ezartzen duen moduan, hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabilita, Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 14an hartu zuen Erabakian ezarritakoa aplikatuz (horren bidez, onartu dira xedapen orokorrak ele bietan egiteko neurriak, xedapenok lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma dutela ere).

3.- Generoaren araberako eraginaren txostena.

6/2022 Legearen 14.4 artikulua ezartzen duenaren arabera, proiektuaren testua idatzi ondoren generoaren araberako eraginari buruzko txosten bat idatzi eta Emakunderen eskura jarriko da, legedian jasotakoa perfektionatzeko.

Txosten horren beharra bat dator Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikuluan ezarritakoarekin; txostenaren lanketan, *generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeari eta emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna ezabatu eta berdintasuna bultzatzeko neurriak hartzeari buruzko Jarraibideak* beteko dira, Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21ean hartu zuen Erabakiaren bidez onartuak (erabakia 2012ko irailaren 25eko EHAA-n argitaratu zen, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariak abuztuaren 21ean eman zuen 40/2012 Ebazpenaren bidez).

4.- Arau-eraginaren azterketaren memoria.

6/2022 Legearen 15.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen organoak, nahitaez, arau-eraginaren azterketaren memoria egingo du, aipatu xedapenean aurreikusitako moduan eta bertan aipatutako edukiak kontuan hartuta.

5.- Txosten juridikoa.

Beharrezkotzat jotzen da Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzuen Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoak txosten juridikoa egitea, 6/2003 Legearen 15.4 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Dekretu-proiektuak oraingo 168/2019 Dekretua ordeztuko duela eta bigarren horren zati handia hitzez hitz kopiatuko dela kontuan hartuta, txosten juridikoak egindako aldaketak eta indarreko araudiarekin bat etortzea baino ez ditu aztertuko (bereziki, Enplegu Sistema Nazionalaren enplegua aktibatzeke programa erkideak arautzen dituen irailaren 28ko 818/2021 Errege Dekretua).

Era berean, txosten juridikoak arau-proiektuak enpresen eraketan, abiaraztean eta funtzionamenduan izango duen eragina aipatuko du, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6.1 artikuluan xedatutakoa betez.

6.- Memoria ekonomikoa.

Lehenago esan bezala, Dekretu-proiektuak desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasuna hobetzeko hainbat programa finantzatzeko dirulaguntzen zenbatekoak igotzea ekarriko duela kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da berariazko memoria ekonomiko bat egitea, 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan aurreikusitako moduan eta Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatutakoa betez.

7.- Araudi-proiektuaren aldez aurreko onarpena eta egoitza elektronikoan zein Legesarean argitaratzea.

Dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik, dekretu-proiektuak Lan eta Enplegu Sailburuaren onespina jaso beharko du, 6/2022 Legearen 15.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Aldez aurreko onarpen-aginduari onartutako testu elebiduna eta aurreko apartatuetan aipatutako gainerako dokumentuak –espedientea osatuko dutenak– erantsiko zaizkio.

Aldez aurreko onarpena jaso duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratuko da, batez ere, 6/2022 Legearen 16.3 eta 17.3 artikuluetan aurreikusitakoaren ondorioetarako,

argitalpen horren data aldi berean gauzatuko diren izapide guztiak betetzeko epearen hasiera izango dela kontuan izanik.

Hala aldez aurreko onarpenaren agindua nola araugintza-proiektua Legesarea lankidetzagunean argitara emango dira (2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehenengo apartatuaren 2. puntua).

8.- Entzunaldi eta informazio publikoa.

Araudiaren testuak aldez aurreko onarpena jaso ondoren, entzunaldi eta informazio publikoaren izapidea egin beharko da, 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoa; horrekin batera, bete egingo da herritarren parte-hartzeari buruzko baldintza, herritarrei aldez aurretik kontsulta egiteko beharrik gabe; izan ere, hori bat dator 6/2022 Legearen 11.4 artikuluan, Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartu zuen Erabakiaren (arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzeko Erabakia) lehenengo apartatuaren 5. puntuan eta APELren 133.4 artikuluaen bigarren paragrafoan xedatutakoarekin.

Entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak jarraitutasunez edo beste une batean egitea eskatzen ez duten izapideekin batera egingo dira, epe komun berean, aldez aurretiko onespena jaso duen testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoa argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Kontuan izanik Dekretu-proiektuaren eraginpeko batzuk enplegu-zentro bereziak direla, haiek izan baitaitezke aldatuko diren dirulaguntza askoren onuradun, eta zentro guztietara iristeko zailtasuna kontuan hartuta, zentro gehienak biltzen dituzten elkarten bidez, hau da, ELHABE eta BEREZILAN elkarten bidez emango zaie entzunaldia.

Entzunaldia eman behar zaie, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkotzarik handiena duten sindikatu eta enpresari-erakundeei (ELA, LAB, UGT eta CCOO eta CONFEBASK).

9.- Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen parte-hartzea eta haiei kontsulta egitea.

Aldi berean, beste administrazio batzuek parte hartzeko eta haiei kontsulta egiteko izapidea beteko da, 6/2022 Legearen 18. artikuluan aurreikusitakoa. Izapide hori EUDELen bitartez (Euskadiko Udalen Elkarte) eta lurralde historikoetako hiru aldundien bitartez egingo da, kontuan hartuta, betiere, esandako administrazio horiek hainbat jarduera gauzatzen dituztela enplegu-politika aktiboen arloan.

10.- Nahitaezko txostenak eta irizpenak.

Prozedura bideratzean dagozkion nahitaezko txostenak eskatuko dira, izapide horiek arautzen dituzten xedapenek agintzen duten unean eta moduan, arau-xedapenak prestatzeko gaur egun indarrean dagoen prozedura gogoan hartuta. Besteak beste, honako hauek bildu behar dira:

-. Aldi berean eskatuko diren txostenak, 6/2022 Legearen 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

- ✓ Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egiaztapen-txostena, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartutako Jarraibideetako lehenengoan (2.1.a) xedatutakoaren arabera.
- ✓ Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak (xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenak) 3. artikuluan eta otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuak (Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak) xedatutakoaren arabera.
- ✓ Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua onartzen duen urriaren 18ko 309/2005 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoa oinarri hartuta.
- ✓ Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzako Herritarrekiko Arreta eta Zerbitzu Digitalen txostena, urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuak (sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- ✓ Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

-. Aurreko izapideak amaituta, jarraian beteko diren funtsezko txostenak:

- ✓ Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1. b) artikuluan ezarrita dagoena aintzat hartuta.

6/2022 Legearen 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

- ✓ Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren legezkotasun-txostena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuak 11.1 artikuluan ezartzen duenaren arabera.

6/2022 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera.

- ✓ Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, ekonomia- eta araudi-kontrolarena, batetik, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko

Legearen testu bateginean eta, bestetik, EAEko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

6/2022 Legearen 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

11.- Amaierako espedientea eta prozeduraren memoria laburra.

Amaierako espedientea 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitako dokumentazioak osatuko du; prozedura osoari buruzko memoria laburra erantsiko zaio, aipatu 24. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

12.- Europar Batasunean egin beharreko izapideak.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 6/05 Zirkularrak xedatzen duenari jarraikiz, bulego horretara ekonomia- eta arau-kontrola egiteko igortzen diren dirulaguntzen programei eta deialdiei dagozkien espedienteek modu arrazoituan azaldu behar dute espedienteak izapideren bat egin behar duen Europar Batasunean, eta izapide horiek zer egoeratan dauden; horrez gain, ordura arte egindako jardueren egiaztagiria erantsi beharko dira.

Ez da beharrezkoa Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egitea. Hain zuzen ere, ez da beharrezkoa Europako Batzordeari aurretiazko jakinarazpena – Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 108. artikuluan aurreikusitakoa – egitea.

168/2019 Dekretuan araututako dirulaguntzak eskumenari buruzko Europako araudiarekin bateragarri izateko moduan eratu ziren. Haietako batzuk (Enplegu Lagundua) ez dira estatuko dirulaguntzak, eta gainerakoak Kategorien arabera Salbuespenen Erregelamendu Orokorrean daude jasota (Batzordearen 651/2014 EB Erregelamendua) edo Batzordearen 1407/2013 EB Erregelamenduan (“de minimis” izeneko laguntzei buruzkoan).

168/2019 Dekretuan aurreikusitako laguntza-programa guztien barne-merkatuarekiko bateragarritasunari buruzko araudia ez da aldatuko hizpide dugun dekretu-proiektuaren bidez.

Kontuan izanik Europako Gaietarako Zuzendaritzak dagoeneko eman zuela 168/2019 Dekretuari buruzko iritzia, aipatu zuzendaritzari berriro kontsulta egitea ez da beharrezkoa izango.

13.- Gardentasuna.

“Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona desgaituen enplegarritasunarekin lotutako programa eta zerbitzuak eta enplegu-zentro berezien Euskal Erregistroa arautuko dituen dekretu-proiektua” osatzeko prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio osoa Euskal Araudiaren Atarian (Legegunean) argitaratu behar da,

gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoarekin bat.

14.- Gobernu Kontseiluak onartua.

Dekretu-proiektua egiteko prozedura amaitu eta gero Gobernu Kontseiluaren behin betiko onespena jasotzeko aurkeztuko da, 6/2022 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat.

f) Proiektuaren itzulpena edo idazketa elebiduna egiteko teknika.

Dekretu-proiektu hau idazteko, Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakiari men egingo zaio, haren bidez onartu baitziren lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak.

IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialera joko da azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak (Euskararen Erabilera Normalizatzekoak) 8.1 artikuluan xedatzen duena betetzeko; betiere, 6/2022 Legearen 27.3 artikuluan xedatutakoaren arabera eta apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuaren arabera (zeinaren bidez agindu baitzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko).

g) Prozedura Tramitagune bidez izapidetzea.

«Tramitagune» aplikazio informatikoaren bidez gauzatuko da prozeduraren izapidea, eta Gobernu Kontseiluaren Erabaki hauekin bat etorritik egingo da: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren izapidetze-jarraibideak onartzen dituen; eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren izapidetze elektronikorako jarraibideak onartzen dituen.

Bigarrena.- Prozedura premiazkoa dela adieraztea, dekretua onartu eta argitaratzeko izapideak ahalik eta azkarren betetzeko, desgaitasuna duten pertsonen lan-jarduera egonkorra eta kalitatezkoa lortzeko aukerak sustatzeko dirulaguntzak, baita enplegu-zentro berezien Euskal Erregistroa ere, arautzeari lehenbailehen ekite aldera.

6/2022 Legearen 6.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, adierazpen horrek erdira murriztuko ditu prozedura honen izapidean aurreikusitako txosten eta alegazioak egiteko epe guztiak.

Premiazkotasunaren adierazpen horrek 6/2022 Legearen 6. artikuluko 3. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako arrazoia hartzen du oinarri. Premiazkotasuna 818/2021 Errege Dekretuaren azken xedapenetako bederatzigarrenak xedatutakoak ezarri du (hain zuzen, irailaren 28ko 818/2021 Errege Dekretua, Enplegu Sistema Nazionalaren enplegua aktibatze programaren erkideak arautzen dituen; BOE, 233. zk., 2021eko irailaren 29koa); horren arabera,

administrazio publikoek araudia indarrean jartzen denetik urtebeteko epea izango dute bertan aurreikusitako enplegurako aktibatze programak komun bakoitzerako beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko. Epealdia, beraz, 2022ko urriaren 1ean amaituko da.

Hirugarrena.- Enplegu eta Inklusio Zuzendaritza izendatzea arestian adierazitako proiektua izapidetzeko organo arduradun.

Laugarrena.- Agindu honen berri ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta “Legesarea” lankidetzaren espazioan, 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan eta Gobernu Kontseiluak 2010eko abenduaren 28an hartu zuen Erabakian xedatutakoa betez (xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen erabakia).

Vitoria-Gasteiz,

IDOIA MENDIA CUEVA.

Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburua